



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko agorrilaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko agorrilaren 3an, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, DACHAGUER Peio, GOICOCHEA Iñaki HEGUY Antton.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2023ko uztailaren 28a

Afitxatze eguna : 2023ko uztailaren 28a

5. ERABAKIA: ESKOLARATZE FORFAITAREN ISURTZEA I.E.P. KLASEAN DEN HAUR BATENTZAT (7.5 nomenklatura)

Auzapezak biltzarkideei azaldu die, Donibane Garaziko eskola publikoaren eskumena duen Garaziko SIVOSetik gutun bat eskuratu duela.

Gutunean, SIVOSak Ortzaize herriari jakinarazten dio 2022-2023 ikasturtean Ortzaizeko haur bat Donibane Garaziko lehen mailako eskolan eskolaratua izan dela, IEP (Inklusio Egitura Pedagogiko / ULIS) klasean.

Auzapezak oroitarazi du Ortzaize eta Arrosako eskola publikoen elkarrekin ez duela IEP klaserik eskaintzen. Zehaztu du, IEP klaseek haur bakoitzari egokitutako laguntza eskaintzen dutela.

Bestalde, zehaztu du Garazi SIVOSak 2022-2023 ikasturteko eskola forfaita haur bakoitzeko 800 €tan finkatu duela, eta soilik bere lurraldean bizi diren haurren eskola forfaita duela bere gain hartzen.

Auzapezak biltzarkideei jakinarazi die Garazi SIVOSak Ortzaize herriari eskatu diola IEP klasean duen Ortzaizeko haurren eskolaratze forfaita bere gain har dezala.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, Donibane Garaziko eskola publikoan IEP klasean eskolaratua den Ortzaizeko haurren 800 €ko eskolaratze forfaita bere gain hartzea.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 11
Balizko boz kopurua : 11
ALDE : 11
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko agorrilaren 3an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/08/11n publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/08/11n.